BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4536

EBAZPENA, 2014ko irailaren 13koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, goi mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzen ebazpen-proposamen bat eman eta organo honi aurkeztuko dion Balorazio Batzordearen batzordekideak izendatzen dituena, eta batzorde horren osaeraren berri ematen duena.

Ikusi da goi mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzen deialdia arautzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko irailaren 3ko Agindua.

Aipatutako aginduaren 10. artikuluak adierazten duenez, alde batetik, Balorazio Batzorde bat osatuko da aurkezten diren eskabideak aztertzeko eta organo honi aurkeztuko dion ebazpen-proposamen arrazoitu bat emateko, eta, bestetik, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak batzordekide izendatuko ditu Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako bi teknikari.

Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordeko kideak izendatzea eta batzorde horren osaeraren berri ematea. Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Batzordeburua: Jon Redondo Lertxundi (Gazteria eta Kiroletako zuzendaria).

Batzordekideak:

– Elisabet Altube Bengoa (Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako arduradun teknikoa).

– Carolina Muro Arroyo (Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako teknikaria), batzordeko idazkari jardungo duena.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, herritarrek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 13a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.